

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2332

923/2026 EBAZPENA, maiatzaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendaria bere kargutik kentzen baita.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 15eko 799/2021 Ebazpenaren bidez, María López de Gamiz Villagarcía andrea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatu zen (2021eko uztailaren 15eko EHAA, 139. zk.).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatuz gain, gainerako xedapenak kontuan hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María López de Gamiz Villagarcía andrea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzea, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2026ko maiatzaren 17ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritza eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Plangintzako eta Langileen Kudeaketako Zuzendariordetzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.